

**Udalerriz gaindiko eremuetan euskara
sustatzen dabilzan erakundeentzako 2024ko
dirulaguntza-deialdia**

Pasaia Udalbatzak Euskara sustatzeko jardueretarako dirulaguntzen ordenantza onartu zuen 2021ean, besteak beste udalerriz gaindiko eremuetan euskara sustatzen dabilzan erakundeentzako dirulaguntzak emateko. Eta dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 23. artikuluan, Pasaia Dirulaguntzen arautegi orokorraren eta dirulaguntzak emateko aipatutako Ordenantzan ezarritakoarekin bat, honako hau

EBAZTEN DUT

LEHENA: Onartzea udalerriz gaindiko eremuetan euskara sustatzen dabilzan erakundeentzako 2024ko dirulaguntza-deialdia, ebazpen honen eranskinean jasotako testuaren arabera.

BIGARRENA: Kontu-hartzaileak BDNSri beharrezko dokumentazioa ematea, deialdia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitara dadin. Deialdiaren testua ebazpen honen eranskin gisa jasota dago.

Pasaia, 2024ko maiatzaren 10a

Teo Alberro Bilbao

Alkatea

DEIALDIA

1. Oinarri arautzaileak

Dirulaguntza hauek emateko oinarri arautzaileak honako ordenantza honetan jasota daude: Euskara sustatzeko jardueretarako dirulaguntzen ordenantza. Dirulaguntza hauek Pasaia Udalaren dirulaguntzen plan estrategikoan jasota daude.

Dirulaguntzen onuradunek, betiere, Pasaia Udalaren Dirulaguntzen Arautegiak jasotako baldintzak bete beharko dituzte, eta, horietaz gain, Foru Ogasun, Gizarte Segurantzaren eta Pasaia Udalaren zergak eta ordainkizunak egunean dituztela egiaztatu. Betekizun horiez gain, dirulaguntza mota bakoitzarentzat zehazten diren baldintzak egiaztatu beharko dituzte.

2. Aurrekontu-kredituak

Dirulaguntza ondoren zehazten den aurrekontu-kredituari egotziko zaio; eta dirulaguntzaren gehieneko zenbatekoa honako hau da:

Udalerriz gaindiko erakundeentzat dirulaguntza
10.481.04.335.00 – 10000 euro

3. Dirulaguntzen xedea, baldintzak eta helburuak

Pasaia Udalak udalerriz gaindiko eremuetan euskara sustatzen dabilzan erakundeei euskararen normalizazioan eragiten duten esparruak lantzeko dirulaguntzak eskaintzea.

4. Eskatzaileek bete beharreko baldintzak

- Udalerriz gaindiko eremuetan euskara sustatzea
- Euskararen normalizazioan eragiten duten esparruak lantzea
- Eskabidea telematikoki aurkeztea deialdia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik hasita ekainaren 30era bitartean.

5. Prozedura bideratzeko eta ebazteko organo eskuduna

Espedientea bideratzeko eskumena duen organoa hau da: EUSKARA SAILA.

Espedientea bideratzean txosten hauek jasoko dira: dagokion informazio-batzordearen txostena eta dagokion arloko teknikari eskudunaren txostena, ebaluazioa edo ebazpen-proposamena. Ebazpena emateko eskumena duen organoa Tokiko Gobernu Batzarra da.

6. Aurkeztu beharreko dokumentazioa

- Eskaera eta proiektuaren memoria.
- Programaren gastuen eta sarreraren aurrekontua.
- Diru-laguntzaren eskabidean eskatzaileak ez badio Udalari baimena ematen egiaztapenak ofizioz egiteko, Foru Ogasuneko zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzako betebeharrak eguneratuta dituela egiazta tzen dituzten agiriak.
- Zinpeko aitorpena. Bakarrik edo beste dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabide batzuekin batera, dirulaguntzaren zenbatekoak diruz lagundutako jardueraren kostua gaindi tzen ez duela egiaztatzen duena.

Zuriketarako aurkeztu beharreko dokumentazio minimoa:

- Dirulaguntza justifikatzeko, entitate edo pertsona onuradunak egindako eta diruz lagundutako jardueren azalpen memoria aurkeztuko du, ekintzaren gastu eta diru sarreraren balantze xehea barne

7. Ebazpena emateko eta jakinarazteko epea

Ebazpena emateko eta argitaratzeko epea 6 hilabetekoa da eskaerak aurkezteko epea irekitzen denetik. Gehienezko epea ebazpenik argitaratu gabe igarotzen bada, interesatuek ulertu ahal izango dute diru laguntza emateko eskaera isiltasun administratiboz ezetsi dela.

8. Onartutako dirulaguntzak ordaintzeko arauak

Onartutako eskaerei dagokien dirulaguntzaren % 80a eskaera egiten den urtean ordainduko da eta % 20a behin proiektuaren zuriketa aurkeztutakoan. Aurkeztutako memoriaren zuriketa eskaera egiten den urtearen ondorengo urteko martxoaren 30a baino lehen aurkeztu beharko da.

9. Administrazio-bidearen amaiera

Diru-laguntza ebazteko egintzak amaiera ematen dio administrazio-bideari. Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 123. eta 124. artikuluetan xedatzen denarekin bat, ebazpen horren aurka, aukerako berraztertze-errekurtsoa jar dakioke Udal honetako Tokiko Gobernu Batzordeari, hilabeteko epean, jakinarazpena jasotzen denetik kontatzen hasita. Edo bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztu daiteke zuzenean Administrazioarekiko Auzien Donostiako Epaitegian, bi hilabeteko epean, jakinarazpena jaso eta hurrengo egunetik kontatzen hasita, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 19/2013 Legearen arabera.

10. Eskaeren balorazio irizpideak.

Ikusi: Pasaiaiko udalerrian euskara sustatzeko jardueretarako dirulaguntzak arautzen dituen ordenantza

<https://egoitza.gipuzkoa.eus/gao-bog/castell/bog/2023/09/27/c2306889.pdf>

11. Jakinarazteko edo argitaratzeko bideak

Udalerriz gaindiko eremuetan euskara sustatzen dabilzan erakundeentzako 2024ko dirulaguntza-deialdia Dirulaguntzen Datu Base Nazionalean argitaratuko da, deialdiaren laburpena Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta prozeduraren ebazpena udal egoitza elektronikoan (www.pasaia.eus), Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 45.1. artikuluan ezarritakoarekin bat.

Halaber, emandako dirulaguntzak Dirulaguntzen Datu Base Nazionalean argitaratuko dira.



Sinaduren laburpena / Resumen de firmas	
Titulua / Título:	2024WDIR0001-deialdiaren ebazpena/deialdiaren ebazpena (PASAIAKO UDALA)